

Juan Krutz Zapirain

Etxeberria

1867-1934

Orduko eta oraingo aldizkari, liburu eta gainerako komunikabideetan, argitaratu izan dira Juan Krutz Zapirainen bizitza eta bertsoak. Gauza gutxi da nik erantsi dezakedanik. Bakar-bakarrik nahi nuke zenbait xehetasun argiago eta ugariago eman; eta gainera nire eskerrona agertu idazlanak argitaratzea bideratu dutenei, omenaldiak antolatu dituztenei eta "Zapirain Anaiak Oroimengarria" sortu dutenei.



Karlisten eta liberalen arteko gerrate-garai haretan jaio zen gure bertsolaria. Lehenengo karlistatea bukatuzera zijoala, erre egin zen Bordazar. Gizaldi asko lehenagotik hasita Zapiraindarren bizilekua izan zena. Gerra-denboran baserri horretan bizi ziren Juan Krutzen gurasoak, Jose Bizente Zapirain eta Felipa Erramona Etxeberria, beren zazpi seme-alabekin batera. Familiak lekuz aldatu beharra izan zuen suteagatik, eta "Azken Portu"n jarri zen bizitzen, gaur Maria Lezokoaren kalea 30.a den horretan.

Hementxe jaio zen Juan Krutz, 1867ko urtarrilaren 3an. Haurra izan eta bost egunera hil egin zen ama. Bordazar baserria konpondu eta laister, bere etxera itzuli zen aita bere zortzi seme-alabekin. Esan beharrik ez dago, latza izan zela denentzat familiako bizitza. Handik hiru urtera aita bigarren txandan ezkondu zen Maria Josefa Aranbururekin. Ezkontza honetatik beste hiru seme-alaba jaio ziren, hauen artean Joxe, gerora bertsolaria izango zena hau ere.

Juan Krutz Bordazarren bizi izan zen 25 urte arte, orduan ezkondu zelarik Mikaela Indaberea Arrieta donostiar neska gaztearekin. Ezkontza San Inazio Parrokian ospatu zen 1892ko abuztuaren 6an. Telleria baserriko alaba zen Mikaela. Baserri hau Egiako lurretan zegoen, Urumea ibaiaren ertzean, Loiola aurrez-aurre zuela. Etxe egokia Telleria hori, baratza ederrez inguratua. Han bizi izan zen Juan Krutz eta han jaio ginen beroren bost seme-alabak.

Langile artatsua zen eskulan-mota guztietan: baratzak zaintzen zituen, eta bere ofizioari zegokion edozein zeregin betetzen zuen. Atsedenditana, batez ere negu aldean, suaren inguru, emazteak irakurtzen zion zenbait idazlan, eta bera, etorri oneko bertsolaria izanik, adi-adi egoten zen. Irakurraldia bukatutakoan, isiltasunean egiten zuen bere lana; isiltasunean mamitzen zituen bere bertsoak, barruko eskakizun batek bultzaturik, eta ez beste ezerk; azkenean hasten zelarik kondaira osoa kantatzen. Emazteak idatzita gordetzen zizkion beraren bertsoak. Horrela jaio zen bere poema Brabanteko Jenobebaren bizitza, hain zabalkunde oparoa izan duen bertso-sorta luzea. Guztira 163 estrofa ditu, 1304 bertso-lerrotara iristen delarik istorio osoa.

Asko eta asko izan dira gai desberdinei buruz berak idatzitako poemak eta gure amak jaso zituenak. Hauetako gehienak argitaratuak izan ziren garai-

ko liburu eta aldizkarietan. Makazaga argitaletxeak ere bere "Bertso-paperak" bilduma sonatuan plazaratu zituen gure aitaren bertso-sortak. Bere bertso-saio ia denak Tellerian idatzi zituen, bere ezkontza-bizitzan (1892 -1918). Aitak kantuz ematen zituen eta amak eskuz jaso. Era harrigarrian hartzen zuten elkar batak eta besteak.

Andrea hil zitzaion 1918ko azaroaren 4ean: gertakizun mingarria izan zen familia osoarentzat, eta bereziki Juan Kruzentzat, aski ongi agertzen denez "Azkeneko gaba" izeneko bertsoetan. Koldo Mitxelenak idatziz adierazi zuenez, bertso-sorta hau omen da gure aitaren bertso-lanik hoberena eta ezaugarriena, hots, bere emaztearen heriotzeko kantakizun xumea.

Soldadu-kuartela egin behar zutela eta, 1924ean utzi egin behar izan genuen Telleria, samintasun handiz utzi ere. Oroitzapen asko ziren han gelditzen zirenak. Egoera horretan, Juan Krutzek bere sustraietara itzultzea erabaki zuen, Erreenteriara. Arramendi baserrian jarri ginen bizitzen, eta bizimolde berri bati ekin genion.

Arramendin elkar ezagutu zuten On Manuel Lekuonak eta Juan Krutzek, eta lagun minak egin ziren, elkar askotan ikusten zutelarik. On Manuel izan zen, ezbairik gabe, gure aitaren idazlanen zabalkundeari indar berezia eman ziona.

Emaztearen heriotzak gogor astindu zuen Juan Krutz, tristura sartu zitzaionalarik eta gogorik eza. Hala ere, Arramendin bukatu zuen beste poema luze bat, *Jesusen Nekaldi ta Eriotza* edo zeritzana. On Manuel Lekuona ahalegindu zen poema hau aurkitzen, beronetaz askotan hitzegin baitzuen autorearekin; baina ez zen azaldu.

"*Jesusen Nekaldi ta Eriotza*"-ri dagokionez, aurretik 64 bertsoz osatutako lan bat idatzi zuen gai berdinari buruz. Berau, On Manuel Lekuonak bildutako papere artean agertu zen. Nire amak koaderno batean idatzitako orijinala zen.

1980. urteko urriaren 20an Oiartzunen idatzitako gutun batean, On Manuel Lekuonak, Antonio Zabala Aitari "*Juan Krutz Zapirainen Jesusen Pasioa*" aurkitzearen poza agertzen zion, honen kopia bat bidali ziolarik. Zabala Aitak poz handia

hartu zuen bai, eta bere nahia lehen bait lehen argitaratzearena izan arren, liburu bat osatzeko bertso gutxi zirela eta, zerbait urte igaro ziren, hain zuzen Salbador Zapirain "Ataño" Juan Krutzen ilobak "*Asisko San Frantziskoren bizitza*" bertsoak idatzi zituela gogoratu zuten arte. Urte batzuk barru, Juan Krutzen eta bere iloba Ataño-ren bertsoekin Auspoa Argitaletxeak bere 153. liburua argitaratu zuen.

Bazen Arramendin, zizailuko kajo handi batean, bertso-bilduma eder bat, eta honekin batera etxeko beste oroitzapen asko: hemen izango zen, baita ere, On Manuelentzat hain interesgarri zen Pasioko pieza hori. Dena dela, polizia nazionalak egindako miaketa batean, berekin eraman zuten aipatu dugun kajoian gordetzen zen guztia. Bi alditan neronek egokiera izan nuen eraman zizkiguten gauza preziatu horietaz nire interesa agertzeko, eta bietan erantzun berbera eman zidaten. Dena erre egin zutela. Beste zenbait bertso-sorta ere idatzi zituen, baina hauek ere aurrekoen zorte bera izan zuten. Lan hauen artekoen bat edo beste gure anaia Antoniok jaso zituen, eta neronek ere kopiatu nituen behin baino gehiagotan.

Arramendin baserriko lanetan aritzeaz gain, tola-re txiki bat eraiki zen, sagarra jotzeko eta sagardo egiteko, etxekoentzat eta kanpokoentzat egin ere.

Sagardogintzan, lehendabizi zakuetako sagar guztia sagar-jotzeko makinan txikitu ohi zen, eta ondoren tolarera eraman, han patsa estutzeko.

Tolareak 3x4 metroko luzezabala zuen, erdi-erdian burdinezko ardatza zuela, torlojo amaigabeko baten birak zituen ardatza. Tolarean patsa zabalduetakoan, patsolak (ohol lodiak) jarri ohi ziren gainean, krika baten bidez estutzen zirenak, orduerdi batez horrela zanpatzen edukiz. Lehenengo prentsaketa honi, mustiorik gehien ematen zuenari, beste zenbait prentsaketa gehitzen zitzaizkion, harik eta mustio gehiago ateratzerik ez zegoen arte.

Ateratako mustio guztia, 4500 litro inguru, tolarerean zegoen tinian (ontzi handi batean) biltzen zen, eta hemendik iadanik garbituta zeuden kupel txikiago-



etara pasatzen zen, bertan irakin zezan. 1931-1932ko eginaldian, etxeko sagardotegian 14.696 litro saldu ziren. Eta eginaldi berean bezero batentzat 49.612 litro egin ziren gure etxean.

Garai haietan Arramendi baserria leku baketsua zen, eta bertan igaro zituen gure aitak bere azken urteak, bizitza erretiratua eramanez eta familiari eta bere oroitzapenei atxikia. Zalantzarik ez dut egiten bakardadean beste poema asko ere onduko zituela; eta poemok bildu izan balira, oraindik handiagoa izan zitekeela haren bertsozko altxorra. Gizon atsegina zen, erlijio-sentipen handikoa, bere hizkuntza maite zuena, aholkuak emateko beti prest zegoena. Esaten zuen, familia hazteko gauzarik garrantzitsuena norberaren etsenplu ona dela. Etxetik oso gutxitan ateratzen zen, beharrezko gauzetarako bakarrik. Ikustaldi eta bisita asko izaten zituen. Bere lagunek ere oso estimatua zeukaten. Adibidez, hona hemen Zabaletak eta Urangak gure aitari eskainitako bertso bana:

“Eskolarikan ez dauka baña
abillagorik nor buruz?
arritu leike irakurrita
Jenobebaren liburuz;
biotzetikan maite zaitudan
aiton zoragarriya erruz,
urte askuan osasunarekin
gora Zapiarain Juan Cruz”

“Eres Juan Cruz Zapiarain
el traductor elegante,
de la notable y bella obra
Genoveva de Bravante.
Ez daukat lotan nere begi-
garbi ikusten det, orra,
gauza gutxikin ordaindu dizut
zeugana genduen zorra.”

Hain zuzen, 1.930ean mamitu zituen argitaratuak izan ziren bere azkeneko bi poemak. Bata, “Gure euskera”, “Errenderiko olerti-gudua” egunerako argitaratua, 1.930eko udan ospatu baitziren olerti-jai horiek eta bere jaoiterrian. Eta bigarrena “Oraingo legia”, “Oarso” aldizkarirako egina Errenderiko ikuspegiak bilduz, eta “Arramendi” ezizenarekin bere lana aurkeztuz. Urtetan zehar, gure aldizkari kutun honetan agertu izan dira. On Manuel Lekuonaren, eta nire lagun miña zen

Koldo Mitxelena artikuluak gure bertsolariari eskainiak.

Juan Krutz Arramendin hil zen, 1934ko martxoaren 8ko arratsaldean. Perlesia izan zen bere azkeneko gaitza. Hurrengo egunean ospatu ziren hiletak Jasokunde Parrokian, eliza jendez gainezka. Adierazpen bikainetako izan zen huraxe.

Hura hil eta handik hilabete batzuetara, Aitzolek, izen handiko eukal idazleak, Bilboko “Euzkadi”-n, kazetako lehen orrialdean, artikulu luze bat argitaratu zuen, argazki eta guzti, idazlanaren izen burua, “Los poemas del bertsolari Juan Cruz de Zapiarain” izan zelarik. Artikulu honetatik zenbait esaldi ateratzen ditut orain:

“La personalidad de ese artista popular que llamamos bertsolari es muy compleja. Hay bertsolaris luchadores, otros más tranquilos y reposados y algunos más recatados, faltos de vivaz ingenio pero que atesoran grandes cantidades de sentimiento poético, que cantan para su goce y deleite espiritual. De estos últimos era Juan Cruz de Zapiarain, que hace poco tiempo acaba de fallecer en su caserío de Erreterria. Flor silvestre de la literatura euskaldun.

No era el bardo erreteriarra bertsolari de las contiendas ni el de las tabernas. Ha rendido un notable servicio a nuestra literatura popular. Las producciones llenas de originalidad y simplicidad artística, pero tan intensa de sentido psicológico y estético racial de nuestros koplaris, han desaparecido desgraciadamente, sin que una mano enamorada del euskera las haya salvado”.

Bere “Poemategi herrikoientzat” Juan Krutz Zapiarainek languntzaile eta babesle on bat izan zuen, *Brabanteko Jenobebaren bizitza* amultsuki jaso zuena, eta argitaratu ere bai. Hori On Manuel Lekuona izan zen, euskarako eta euskal literaturako irakasle zena, herri-artegintzako adierazpen guztiak gogotik jasotzen zituena, eta nik literatur historiako gertakari jakingarriekin lotzen dudana.

Juan Krutzek, bidezkoa denez, nekazari jatorren bidetik eramaten zuen bere eguneroko bizitza. Kristaua zenez bere etxeko bizitza, emazteak, andre Mikaelak, euskal liburuak irakurtzen zizkion atsedean orduetan. Lardizabalen *Testamentu Zar ta Berrico Condaira*, G. Arruek itzultitako *Brabanteko Jenobebaren bizitza* isil-misil guztizko arretaz entzuten zuen bere emaztearen irakurraldia. Horrela, ezarian ezarian, ideiak finkatzen zitzaizkion buruan. Bere asmamenak sortutakoari erraz eusten zion oroitzapenak, eta iraunpen harrigarri eutsi ere. Berak sortutakoen artean bereena duen lana “Azkeneko gaba” izenekoa da, bere emaztea hil zitzaionean mamitu zuena.

Bertso-sorta horretan berezko sentimentu baten sendotasuna ikusten da, olerkari erromantiko baten apainduriak jantzia. Agoniaren adierazpen bizi-bizian, nik atseginez aukeratzen ditut unerik hunkigarrienak eta zirarragarrienak. Bere burua-
rentzat hartzen ditu une hartako pentsakizunak, hala nola azkenetan den emazteari ura ezpaine-
tara ematean, hori bera bertsolariarekin nork egingo ote duen galdetzen duenean.

“Ur preskua maiz ematen niyon;

an negon aldamenian:

Ni onla zeñek serbituko nau

miñez jartzen naizenian?”

Bertso-sorta guzti honetan kristau sentipen handi bat nabari da azpian, sentipen horrek oinazea sublimatzen duelarik gizaki apalen eramanpenez, barau baita apalen altxorra eta beren leialtasunaren sekretua.

Apaltasunean hil zen, bizi ere hala egin baizen, ezkutuan eta gizakien begiradetatik gordea. Baina bere arrazaren hizkuntzari egindako belar usaintsuzko opariak ongi merezia du euskara maite dutenen oroitzapen sotila. Aita A. Zabala jesuitak, 1.975ean, *Zapirain Anaiak* izeneko bertso-bilduma argitaratu zuen, 349 orrialdeko liburua, bertan Juan Krutz eta Joxe anaien bizitza eta bertsoak plazaratzen direla. Liburu horretan bil-tzen dira, ez behar bada bertso-sorta guztiak, baina bai gehientsuenak. Ez zen erraza izan bertso horiek non zeuden aurkitzea, horretarako liburutegi, artxibategi, eta pertsona partikularren paperak arakatu beharra baitzegoen. Harrera ona izan zuen liburuak, argitalpen gehiago izate-
ra iritsiz.

Geroago, “Xenpelar Bertso Eskola”-k, Errenteriko Udaleko “Euskara Batzordea”k argitaratu zuen *Errenteriako Isteriak* deritzan idazlana. Euskal kulturari eskeinitako liburua dugu, bertan garai desberdinetako errenteriarrek aipatzen direlarik, arlo batean zein bestean aritutakoak. Bertsolari

dagokienez, Juan Krutz Zapiraini 35 orrialde eskaintzen dizkiote, aditzera eman ez bere bizitza eta bertsoak, iruzkin zabalak eginez.

“Xenpelar Bertso Eskola”k antolaturik, 1989ko Santo Tomas egunean, omenaldi bat egin zitzaion Zapirain anaiei, “Xenpelar” deritzan ekintza-aretoan. Bertan izan ziren ekintzaren arduradunak eta “Xenpelar Bertso Eskola”ko gainerako bazki-deak, omendutakoen familiartekoak, “Udaleko Euskara Batzordea”ko ordezkariak eta jende asko ere bai, ekitaldi hunkigarria ospatu zelarik.

Bi bertsolarien bildumetatik saio hauek aukeratu ziren: Juan Krutzen aldetik “Gure euskera” izeneko bertsoak; eta Joxeren aldetik “Alarguna” izenez ezagutzen direnak. Jaialdian eskuhartu zuten bertsolariak hauek izan ziren: Agirre, Murua, Lazkao Txiki, Peñagarikano eta Kazabon. Gaiak, ardatz hauen inguru bilbatu ziren: Eskola Zaharra eta Eskola Berria, Urte Zaharrari kopla kantari, Zahartzaroa, Agurra.

“Xenpelar Bertso Eskola”k ZAPIRAIN ANAIK Oroimengarria antolatu zuen, ekitaldi hau urtero Santo Tomas egunean ospatzen delarik. Juan Krutzi dagokionez, asmamen ederra hauxe, urtez urte bizirik eutsiko baitio bere bertsozko lanari. Eta horrela bertsolaritza hobeto ezagutuko da, eta ugarituko ere bai, euskararentzako maitasun handi bat errotuz, berak gure hizkuntzari zion maitasunaren antzera.

Bukatzeko, “Gure euskera” sortatik, hartutako bertso bat:

“ Bedeinkatua izan dedilla,

euskera, zure itzala!

Zuk erakutsi ziñidan neri

munduan iñor nitzala.

Zeruko Jaunak milla urtian

gurekin gorde zaitzala!

Zu galtzekotan, erri ta mendi,

urak iruntsi gaitzala!”.